

## 1990eko liburutegintza (I)

JOAN MARI TORREALDAI



828 liburu euskaraz. Egia esan, ia bederatzirehun dira euskaraz iaz atera ziren liburuak, kontuan harturik hizki gabeko edo ia hizki gabeko liburuskaz guztiak. Nik analisirako hartzen ditudanak gutxiago dira, beraz. Doala ohar hau aurretik.

Ia urtero gertatzen den bezala, azken urtea da euskal liburuaren urterik oparoena. 1990ean aurreko urtean baino ehun bat liburu gehiago plaza-ratu zen. Aurreko urtearen gaineko hazkuntza % 13koa izan da, eta ez, agentziek zabaldu dutenez, % 31koa, ISBNko datuez baliaituz.

Euskal liburuak ez du urtero gorakada berdina izaten. Produktuok ez du erritmo berea urtero urtero. Igoera-kolpe on baten ondoren, halako gerakuntza moduko bat gertatzen da. Maila bera mantendu egiten da, gutxi edo asko, baina hazkuntza ez du tiroirik. Ez dakit arazoa non dagokeen: ekoizpen-ahalmenean ala hartzailearen irenste-kapazitatean. Bestela esan, argitaratzaileen jokabide teknikoan da ala irakurlearen saturazioa? Ez dakit.

Ez dakit, ezta ere, 828 liburu asko ala gutxi den. Batzuentzat asko da, gehiegi, irakurtzen dena kontuan hartuz. Beste batzuentzat, ez da aski, gutxiegi da, ditugun premiak aintzat izanik. Nik uste ezin dela arazoa planteatu maila honetan, tituluaren kopurua alegia. Arazoa ez da titulu-kopurua bakarrik, baizik eta, adibidez, zenbateko tirada, zein liburu-mota ateratzen den, etabar.

Dena den, kontsolamendurako besterik ez bada ere, eduki dezagun kontuan nondik gatozen. Jaikingarri da XIX. mendea bitartean 588 liburu atera zirela euskaraz, eta beraurtatik 195 bakarrik zirela jatorrizkoak. Garai hurbilagoetara etorri, gogora dezagun 1937-1950 bitartean urteko 10 liburutik ez ginelako pasa. Eta oraindik atzo, 1980-1981 urteetan 200 liburu inguru bakarrik ateratzen dela urtero euskaraz. Gaurregun, aldiz, egunean 2,54 liburu ateratzen da.

Asko, aski, gutxi? Zeuk esan, irakurle.

## Berriz berezirik

JEAN LOUIS DAVANT



**P**PASTORALAZ ariko naiz berriz, enetzakoaren gustu nahiz. Beste zuberotar idazle batek erraiten zidan berriki: nolaz bada gertatzen da gure teatro zaharra zuberoko koralatutik uzten dutela, ez baita Euskal Herri osora hedatzen? Arrotz herri eta mintzairerako antzerkia kopiatzen dutenek, euskal antzerkiaren ezin dutea gauza bera egin? Zuberotar lagun horrekin bat nago eta alde berak ohiztatzen ditut hemendik, ene herri eta zoleci. Noiz arte irauen duzue betiko itsuduran? Noiz ohartuko zarete pastoralak ez dela zuberotar bitxi hauen zokokeria bat? Pastoralak dela egiazko euskal antzerkia? Eta ez otoi har zaharkeariaren estakurua tragediaren baztertzeko. Aski frogatua du erreberitu dela, orain kontu dela eta gai guztien erakusteko gauza dela. Beraz, getoa utzi-rik, noiz hasiko zarete manexak eta hegoaldeko pastoral berrien idatzen eta zuen herrietan emaiten? Gogotik etorriko gara zuberotarrak, batzuk bederen. Ez gara indioak eta bukatu zen gure bukolismoa.

## •egin

### Arzalluzen zalantza

EAK bere posizioari eustek eta EEren deskalabruak EAJren barruan PSOErekin zuzenean negoziatzearen eta agintean jaritzearen aldekoak zuzertu egin ditu. Bere garaian emandako arrazoiei erantsi behar zaie, hirukoitzak EArentzako oxigenozko baloia sendotzea eta EE tratuera berdinarekin berpiztea ezinezkoa izatea suposatu duela. Arzalluz eta Ardanza orain debatan sartuta daude, egungo exekutiboarekin jarraitu edo hankaz gora bota behar den eztabaidatzen. Estetika arrazoiek pixuaren orratza gobernuarekin jarraitzea mugituko dute, arrazoi praktikoez, berriz, gobernu eta Jauregirekin paktuak egitera. Gogoetaren emaitza, al-daketa zerutiarrak bezala, sekretua da.

MARTIN GARITANO / 1991-VI-1

## •EL PAIS

### Kataluniako adibidea

Lau imajinek sinbolizatzen dute Kataluniako gizarteak erakutsi berri duen eredu: Au-

## HEMEROTEKA



EL PERICH / NAVARRA HOY / 91-VI-1

tonomi Elkarte horretako eta Estatuko segurtasun indarren koordinazio eraginkorra, Segurtasun Batzordearen funtzionamenduz sortutako tirabirengatik ezarria; biktimen ehorz-keta, izan ere, Katalunian jaio edo ez bertan lurperatu bait dituzte, bizi ziren tokian sustrai sendoak zituztela agerian geratu ondoren; azken agurreko zere-monian erabilitako bi hizkuntzak; eta bandera bikoitza, espainola eta Kataluniakoa biktimen hilketzen gainean. Sinboloak eginza bihurtzen direnean, inongo itsukerik ezingo ditu menperatu.

EDITORIALA / 1991-VI-1

## •EL MUNDO

### EAJk hortzak erakusten ditu

Impresioa daukat momentu hauetan Gipuzkoako gobernu, helburua baino gehiago, EA behin betirako erasotzeko eta hankaz gora botatzeko bitartekoa dela, alderdi hori instituzioak kontrolatzen zituen tokietan bakarrik bait dago orain. (...)

EAJk nahiago izatea Gipuzkoan minorian agintzea, EArenkin gehiengoko gobernuan parte

hartzea baino, bere sozioak sartzien dion errespetua erakusten du, edo bestela berdin zaio ez agintzea. Ez dago hain argi zer egingo duen EAK, kaka burutik behera egiten dioten eta «pare-rik» ba duen ikusten dioten eta hirukoitza apurtzeko lan zikina egiten duen bitartean.

MARIANO FERRER / 1991-VI-1

## •DEIA

### Berrazterketak, birplanteiak eta opak

EEko buruzagiek ulertu dute martxa honetan desegiteko edo gobernu nahiak dituen indar politikoa bat eratzeko bidean doazela, baina Legebiltzarraz kan-

poko alderdi baten laguntzarekin. Uste izan dute, ere, Euskal Herrian eskuina ari dela nagusitzen eta herri honek ez duela ezkerreko erreferentzia indartsurik. Hor nahi dute lidergotzan jardun, abangoardia izan, eta Larrinagaren ustez, ba dute tokirik EAKo «kolektibo sozialdemokratik, PSEko eta IUKo sektoreak, eta baita indarkeriatik bananduta dauden HBko sektoreak ere».

(...)

Euskal Herriko politikaren panoraman, egon liteke tokirik egitasmo sozialdemokrata bantentzako, EEK bultzatutakoa bezelakoentzako edo beste bantentzako, baina ez EAJ eta EA bezalako bik gizarte espertu bera lehiatu eta adierazteko.

SANTHI LARRAÑAGA / 1991-VI-1

## ZUZENDARIARI

### Tolosa aldeko Eskola Publikoak dela eta

Joan zen larunbatean agertutako karta irakurri ondoren, puntu batzuk argitu nahi ditut irakurle informazioarako:

1) Tolosa aldeko Eskola Publikoaren *Irakaslegoa* iritzi eta joera ezberdinetako pertsonaz osaturik dago. Bada bere lanpostuaz bakarrik arduratzen denik. Badira baita helburu altruistagoekin kanpaina bat antolatzen dutenak, eta horien artean bada marko estu batean taldekeriaz jokaturik minorien ahotsa marjinatu duenik, azken egunotan oker-razu zuzentzen saiatu badira ere. Eta bada, eztabaida baino, polemika sortu nahian aho biko labana bezelako karta idatzi duenik, Tolosako andereño ezinez (ez izanez ote?) izenpeturik, non egia-oren ondoan, bazierrak nahasteko haziak ereiten diren. Horrek ez dio inori mesederik egin. Azkenik bada, horietatik aparte dabilen irakasle adana, gaurko Eskola Publikoaren egeoraz

kezkatutik, konpromezu maila ezberdinetan mugitzen garenok. Askotan etsita, dagoen panorama ikusita. Animo!

2) Maizegi ahazten dugu *gurasoen papera* Eskola Publikoaren egeora eta etorkizuna aztertzerako. Zor zaion protagonismoa emateko garaia da, ze azken finean beraien haurrak dira eskolan hazten eta hezitzen direnak, haurrak dira Eskolaren subjektu eta objektuak, eta bere haurrentzako kalitateko hezkuntza aldarrikatu behar dutenak. Badakigu Eskola Publikoko gurasoen kontzientzia maila oso heterogeneoa dela. Horra irakasle-egoaren lana, gurasoak eskolako funtzionamenduan barnerarazten. Ez bakarrik kanpaina bat antolatzeko garaian, hori ondo dagoen arren, baizik eta kurso osoan eta hamaika urteren buruan (E.A.-O.H.O.) beraien kezak, eskaerak eta abar. Azaltzeko zabalguen bat eskainiz ardura eta konpromezu maila handiagoa lortzearen. Eta kontutan hartuz mota guztietako kanpaina, jaialdi edota ekitaldiak guztiz errespetagarri eta onuragarriak direla Eskola Publiko-ko. Zer esanik ez beraien ekimenez sortzen direnean, aur-


tengo jaialdia lekuko.

3) Etsaiak izatekotan goian dauzkagu; *Instituzioak* dira Eskola Publikoaren erantzule. Eta bere arduragabekeriaren aurrean guraso, irakasle eta ikasleak elkarburu behar dugu bururatu, gaur egungo Eskola Publikoaren hezkuntza kalitate aldarrikatuz. Eta ekimenak ondo zuzendu aldamenean publiko izateko asmoa agertu duen herriko beste sarearekin, aurka ez baina kide izanik, —egoera korapilatsuetan objektiboki jokatu—. Azken finean gure herriko hain beharrezko den Euskal Eskola Publiko eta Bakarra lortzeko bide zabaltze lanetan partaide eginkorrak eta aurrerakoak izan nahi dugulako.

4) Bukatzeko karta honen bidez animatzen zaituztet guraso, irakasle eta ikasle guz-tirik, Eskola Publikoaren bar-ruan antolatu diren bi *jaialdi* hauetan parte hartzea: Zizurkilen Ekainaren 2an, Tolosa aldeko Eskola Publi-ko. Gabirian, Ekainaren 23an Gipuzkoako Eskola Txikiak. Besterik gabe, ondo pasa!

KARMELE TOLOSA

## PERTSONAIA



### Marino Lejarreta

Aizu Marino hain goian zaude ta bestek ezin berdindu hobe genduke zure mailako mutil gehiago bagendu egin dezuna pixka batean gogoan izango degu Maglia Rosa zuen gizonai ia minutu bat kendu abilitadea sobra duenak nahi duena egiten du.

JOSE LUIS GORROTXATEGI

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIAN ETXEZAHARRETA

INAKI URIA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E  
Lege Gerdialdu: SS 80090

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Eredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruinea / ☎: 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11